



PARIS EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDE

50 urteko indarkeria eta sufrikarioen ondotik, Europa mendebaldeko azken gatazka armatua konponbiderako fasean sartua da.

Donostian, 2001ko urriaren 17an buruturiko Aieteko Nazioarteko Konferentziaren ondorioz ETAk bere jarduera armatua bukatutzat jotzea erabaki zuenetik, sekula ezagutu ez dugun testuingurua bizi dugu Euskal Herrian.

Hiru urte baino gehiago dira konferentzia horren ekimenei erantzunez nazioarteko sei liderrek, Kofi Annan Nazio Batuen Idazkari nagusia ohiak, Pierre Joxe Frantziako Barne eta Defentsa Ministro ohiak, Gerry Adams Sinn Fein-eko liderrak, Gro Harlem Brundtland Norvegiako Lehen Ministro ohiak, Bertie Ahern Irlandako Lehen Ministro ohiak eta Jonhatan Powellek, Tony Blair Britainiar Lehen Ministro ohiaren bulegoko kontseilari ohiak gatazka konpondu eta gainditzeko asmoa duen bost puntuko "bide orria" aurkeztu zutela.

Euskal gizarteak bere aniztasunean, bakea erdiesteko ahaleginari usu eta masiboki babesu adierazi dio. Gizarte zibilak, ordezkari politiko osoaren eskutik – tendentzia guztiak barne –, gatazka behin betiko konpontzeko baldintzak sortzeko eskatu die bakegileei eta hori Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldearen bidez egin du.

Bake prozesuak bere onera iristeko aukera haundiak ditu eta horren bermea, Gatazkaren konponbidea bultzatzeko eta errazteko, eta alderdien arteko elkarrizketa sustatzeko betebeharra duen Harremanetarako Nazioarteko Taldea eta su etenaren Nazioarteko Egiaztatze Batzordea – ETAk bere armategia balio gabetzen eta zigilupean ezartzen jarraitzen zuela adierazi duena – dira.

Bakearen aldeko baldintzak sortzeko ahaleginek euskal gizartearen sektore zabal baten nahia eta nazioartearen babes geroz eta haundiagoa agertzen badute ere, ezin direla aldebakarrekoak izan ohartarazi behar da. Bakea, nahi ala ez, frantziar eta espainiar gobernuak gatazkaren konponbidean engaiatzearekin soilik helduko da.

Guk, dei honen izenpetzaileok, Parisen bihotzean, printzipio unibertsal gisa zilegitasun demokratikoa eta Giza Eskubideen eta bakearen sustatzea irudikatzen dituen Asanblada Nazionalan, ondoko aldarrikapenak hedatzen ditugu:

- ETA erakundeari, bere desarmatze prozesua burura eraman dezan eskatzen diegu. Nazioarteko komunitateak espainiar eta frantziar gobernuari prozesuan inplikatzeko luzatu dien eskariarekin bat egiten dugu eta desarmatzea molde adostu eta kontrolatua burutuko dela bermatuko duen espazio egokia plantan dezaten eskatzen diegu.
- Zentzuzko epeak errespetatuz sortuko litzatekeen askatze prozesu batean, familien onurarako izanen den urbiltze eta elkartze prozesu baten bidez euskal presoek dispertsioarekin amaitzeko eskatzen dugu. Halaber oinarritzko eskubideen errespetuz, presoek legearen baitako zigorren malgutzea aplikatzea eta erri direnen askatzea ere aldarrikatzen dugu.
- Sufrikarioek sortu ez duen gatazkarik ez baitago, berradiskidetzea sustatzeko eta biktima guzaien aitortza, kalte-ordaina eta asistentzia eskuratzeko pisuzko neurriak hartuak izan daitezkeen eskatzen dugu.
- Ukituak diren nazio ezberdinen interesen izenean eta Bakea sustatzeko behar haundia dagoenez, espainiar eta frantziar estatuei Euskal Herriko gatazkaren konponbidean zinez inplikatzeko eskatzen diegu.

Euskal Herriko gatazkaren konponbidea laguntzeko borondateak bultzaturik eta Aieteko Nazioarteko Konferentziako izpiritu konstruktiboak animaturik, Euskal Herrian eta hortik kanpo Bakearen alde dihardutenentzako, Paris Esperantzaren hiriburu izendatzen dugu gaur.